

EUSKAL HAUTESKUN- DEAK 2024

© Greenpeace/Raia Rivas

GREENPEACE

EUSKAL HAUTESKUNDEAK 2024

Lurraldearen, pertsonen eta justizia sozialaren aldeko gakoak

Euskadik erronka handiak ditu, eta hurrengo legegintzaldian Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak aurre egin beharko diete. Hauteskunde ziklo berriak **gizakien ongizatea eta gizarte justizia erdigunean jarriko dituen gizarte batera eraman behar gaitu, baita gure lurraldea eta planeta zaintzera ere**. Zientziak dio hamarkada hau erabakigarria dela klima-krisiaren aurka jarduteko¹, eta hurrengo lau urteak erabakigarriak izango direla proposamenik onenak abian jartzeko, erakundeen lankidetzaz estutzeko eta herritarrak modu erabakigarrian inplikatzeko. **Gure planeta gaixorik dago², eta aurrean dugun erronkari behar bezala erantzutea premiazkoa da.**

Hala ere, joan den otsailean onartutako **Euskadiko energia trantsizioari eta klima aldaketari buruzko legea**, ingurumen, energia eta ekonomiari lotutako politika askoren gidari dena, murriztuz geratzen da Europar Batasuneko helburuak lortzeko, eta ez da zientziak gomendatutako balioetara hurbiltzen. Bizkorrago egin behar dugu aurrera, eta horretarako beharrezkoa da lege honek aldaketa iraultzaile bat bultzatzea gure pentsatzeko eta jarduteko eran. Horrek aukera handia emango du pertsona gehienek aurrera egin dezaten eta denentzako ongizatea lortzeko.


Aberastasuna bereganatzen, baliabideak eta natur ondarea sarraskitzen eta iritzi publikoaren arreta desbideratzen duten, zein etorkizuneko belaunaldiei kasurik egiten ez dieten gutxiengoan aurrean, ekintza politiko ausartak eta alternatibak planteatzeko garaia da. Ezin dira **Urdaibaiko Biosferaren Erreserbako Guggenheim museo berria** bezalako proiektuak defendatu, kultura eta natura aurrez aurre jartzea ezin duelako aktibo politiko bat izan eta hori da proiektu honen adierazgarria. Kultura eta natura eskutik joan daitezke eta joan behar dute.

Planetarekin bakean dagoen beste gizarte eta ekonomia eredu bat posible da, eta jendearekin eta jendearengandik hasita eraiki nahi dugu, batzen gaituzten elkartasun- oturak indartu daitezkeela uste baitugu, erresilienteago egiten gaituzte eta etorkizun hobe eskainiko digute.

Euskadiko naturaren, pertsonen eta justizia sozialaren aldeko **norabide berde baterantz aurrera egiteko zortzi gako aurkezten ditugu hemen.**

1. [10 claves sobre el nuevo informe del IPCC - ES | Greenpeace España](#)

2. [The nine planetary boundaries - Stockholm Resilience Centre](#)



ENERGIA GARBIA JENDEAREN ESKUETAN³

Euskadik behar duen energiaren %90 inportatzen du, eta azken kontsumoan energia berriztagarrien ehunekoa ez da %10era iristen. Horrek dakarren energia- eta ekonomia-mendekotasun larriaz gain, ondorio larriak ditu ingurumenean eta pertsonengan, bai sortzen duen kutsaduragatik, bai Euskal Autonomia Erkidegoan eta kanpoan sustatzen dituen desberdintasunengatik.

Gaur eguneko desoreka bidegabea konpontzeko, beharrezkoa da energia xahutzeari, prezioen igoerari, nazioarteko merkatuen menpekotasunari eta ezegonkortasunari eta klima-aldaketari aurre egitea. Euskadik lehenbailehen eta, nolatan ere 2040 baino lehen, utzi behar ditu erregai fosilak. Erregai fosilak energia-sistema eraginkor, adimentsu, %100 berriztagarri eta demokratizatu baterako trantsizioari esker utzi behar dira alde batera. Trantsizioaren hedapenak pertsonak eta biodibertsitatea bere epizentroan jarri behar ditu. Horrek esan nahi du Euskadik, deskarbonizazio helburuak aldatzeaz gain, Parisko Akordioarekin eta COP28 erakundeak erregai fosilak erretzeari buruz hartutako erabakiekin bat etortzeko, trantsiziorako modu inklusiboak eta komunitarioak bultzatu eta erraztu beharko dituela, herritarren zeregin aktiboa sustatzeko, ez bakarrik kontsumitzaile gisa, baita ekoizle gisa eta energia-eredu berriari buruzko erabakiak hartzeko ere. Pertsonen eta planetaren osasunerako onurez gain, garrantzitsua da trantsizioaren onurak behar bezala banatuko direla bermatu behar da energia berriztagarriak ezartzen diren eremuetan, bai zerga-ekarpen gisa, bai tokiko enplegua sortuz. Energia trantsizioa aukera bat da klima aldaketaren aurkako borroka eta energia fakturaren murrizketa elkar lotzeko, eta, hala, gizarte bidezkoagoa, modernoagoa, erresilienteagoa eta kohesionatuagoa egiteko, ondasun komunak berreskuratzearen alde eginez eta inor atzean utzi gabe. Next Generation funtsak oraindik ere aukera erabilgarria dira, eta aprobetxatu egin behar dira, bereziki, energia berriztagarriak, autokontsumoa, energia-komunitateak, elektrifikazioa eta eraginkortasuna bultzatzeko, eraikinen birgaitze energetikoaren bidez.

Euskadik badauka gakoa proposamen hauei erantzuteko⁴:

3. [Energías renovables | Greenpeace España](#)
4. [Más información en: Desarrollo renovable necesario para el clima y respetuoso con la biodiversidad y las personas - ES | Greenpeace España](#)



➤ **Energia trantsizioari eta klima aldaketari buruzko euskal legeak ezarritako helburuen anbizioa handitzea**, energia eskaria erdira murrizteko 2019arekiko alderatuz—pandemia aurreko urtea—, eta energia-sistema % 100 berriztagarria eta demokratikoa lortzeko 2040rako. Era berean, 2030erako bitarteko helburuak hauek izan beharko lirateke: sistema elektriko %100 berriztagarria lortzea eta negutegi efektua eragiten duten emisioak %55 murriztea 1990eko mailarekin alderatuta, zientziak adierazi duen moduan 1,5 °C-ko berotze-muga ez gainditzeko.



➤ **Euskadiko Energiaren eta Klimaren Estrategia eta Plana egitea, energia trantsizioari eta klima aldaketari buruzko euskal legeak ezartzen dituen epeetan**, gizartearen partehartze zabalarekin eta erregai fosilak bertan behera uztera bideratuta. Petrolioa fintzeko eta gas likidotua birgasifikatzeko jardueren amaiera planifikatu behar da klimari lotutako helburuekin bat egin ahal izateko. Lehenik eta behin, premiazkoa da gas fosila elektrizitatea ekoizteko erabiltzeari uztea 2030 baino lehen eta 2035. urtean gainontzeko erabileratarako. Proiektu fosiletan, hala nola Euskadiko Hidrokarburoen Sozietatean (SHESA) edo Bahía de Bizkaia Gas-en, parte-hartze publikoa bertan behera utzi behar da 2030 baino lehen. Halaber, Muskizko Petronor instalazioan petrolioa fintzeko jarduera bertan behera uzteko plangintza egitea ezinbertzekoa da.



➤ **Energia berriztagarriak erabiltzen dituzten energia-komunitateak eta autokontsumoa (banakakoa eta kolektiboa)⁵ bultzatzea eta bermatzea⁶**, eta laguntza publikoak (Next Generation funtsak) modu eraginkorrean eskuratzea, bereziki baliabide gutxien dituzten familia eta komunitateentzat. Premiazkoa da autokontsumo kolektiboa desblokeatzea, banatzaileekin prozedura azkarrak erabiliz eta enpresa energetikoei beraien boterea arrazoirik gabe eta gehiegikeriaz erabiltzea debekatuz. Autokontsumoaren aurrerapenari buruzko informazio estatistiko gardena bermatu behar da.



➤ **Klima aldaketaren aurkako borrokarako anbizio handiko energia berriztagarrien hedapena bermatzea, ordenatua eta pertsonetikiko eta biodibertsitatearekiko errespetuzkoa, 2030ean energiaren azken kontsumoan %70eko eta 2040an %100eko kuota lortuz**. Energia Berriztagarrien Euskadiko Lurralde Plana prestatzen ari da. Greenpeacek positibotzat jo du Euskadik energia berriztagarriak bere lurraldean zabaltzeko duen beharra ordenatzea eta naturgune babestuak energia berriztagarrien hedapenetik babestea. Baina Planaren arabera, lortuko den energia berriztagarrien kopurua ez da nahikoa

5. [Alternativas de energía ciudadana contra el cambio climático - ES | Greenpeace España](#)

6. Debe asegurarse que empresas como Repsol, a través de su filial Edinor, no vulneran el espíritu de las directivas europeas de renovables y mercado interior de electricidad al promover modelos llave en mano de comunidades energéticas.

(2030erako EAEko eskariaren % 21). Ezinbestekoa da anbizio handiagoa izatea eta nahitaezko neurriak sartzera, gizartearen parte hartze goiztiarra bermatzeko proiektuen hedapenean, eta tokiko komunitateetan onurak modu justuan banatzen direla ziurtatzeko⁷.

Administrazio autonomikoak, gainera, funtsezko eginkizuna izan beharko luke sustatzaileen, tokiko komunitateen eta tokiko administrazio publikoaren arteko elkarriketa bermatzeko, kasu bakoitzerako irtenbide hoberenak lortzeko.



➤ **Eraikin pribatuak deskarbonizatzeko eta energia-pobreziaren aurka borrokatzeko plana ezartzea**, botere publikoen rol aktiboarekin, berokuntza fosila, hozketa eta isolamendu termikoko sistemak ordezkatuz, bereziki familia ahulenetan. Plan horrek etxebizitza sozial eta ekologikoko funts bat izan behar du, diru sarrera txikiak dituzten pertsonentzat prezio tasatuko etxebizitzetan inbertitzen duten udalerrriak elkartu ahal izateko. Alokairuko etxebizitzaren parkearen efizientziarako laguntzak ere izan behar ditu.



➤ **“Emisiorik gabeko” eraikin publiko autonomikoak:** ospitaleak, osasun-zentroak, eskolak, liburutegiak eta administrazio-zentroak termikoki “solarizatzeko” eta isolatzeko plana egitea, eta %100 berriztagarria den elektrizitate kontsumoa bermatzea. Gas eta gasolio galdaren ordez bero-ponpak eta bestelako soluzio berriztagarriak erabiltzea. Osasun eta eskola zentroak modernizatzearen aldeko apustua egitea, haien eraginkortasun energetikoa eta bizigarritasuna hobetzeko, zerbitzu publikoaren kalitatea hobetzeko eta kostuak aurrezteko. Material toxiko eta ez-osasungarri guztiak kentzea, beruna eta amiantoaren barne, eta erabilera bakarreko materialen erabilera murriztea. 2027rako azalera jakin baten gainera dauden merkataritzako edo industriako teilatu handi guztietan eguzki-energia instalatzeko betebeharra ezartzea, hasi aparkaleku handietatik, merkataritzaguneetatik, industrietatik eta abarretatik.

7. [Necesitamos renovables pero tenemos que hacerlo bien - ES | Greenpeace España](#)

8. [Alianza por la rehabilitación de viviendas sin deja a nadie atrás - ECODES - Tiempo de actuar](#)



AZKARRAGO ETA OSASUNTSUAGO MUGI GAITEZKE⁹

Mugitzeko modua hobetzea funtsezkoa da gure bizi kalitaterako, osasunerako eta gure lanerako, eta ingurumenarekin, gizartearekin eta ekonomiarekin lotutako erronkak gainditzeko, zientziak klima aldaketa geldiarazteko ezarritako mugak gainditu gabe. “Pertsona bat, auto bat” eta “autoak hirigunera erabat sartzeko” garraio ereduak 180 gradu aldatu behar du garraio sistema moderno, garbi, integratzaile, multimodal eta egituratzaile baterantz.

Merkantzien eta pertsonen garraioa sektore nagusia da energia kontsumoari (% 42 2022an, Eustaten datuen arabera)¹⁰ eta negutegi efektua eragiten duten gasen emisioei (% 35)¹¹ dagokienez. Ongizatea irabazteko eta gizarte erresilienteago, kohesionatuago, bidezkoago eta osasungarriagoa finkatzeko aukera izugarria dago.

Euskadik mugikortasun eredu berri horren buru izan behar du, zerbitzu publikoak, eraginkorrak, irisgarriak eta kalitatekoak bermatuz, garraio kolektiboa eta multimodala ardatz dituela. Horretarako, erkidego mailako neurri hauek behar ditugu:



» **Euskadiko Mugikortasun Iraunkorraren Plana onartzea, Mugikortasun Iraunkorraren Euskal Legeak ezartzen duen epean.** Plan horretan, **trenak ekonomia eta lurraldea egituratzeko mekanismo nagusi gisa agertu behar du**, bai pertsonak bai salgaiak garraiatzeko, bai distantzia motzetan zein ertainean. Besteak beste, planak kontuan hartu behar ditu:

» Egungo trenbide sarea hobetzea, hiriguneetan aldiriko trenak bultzatuz, horiek mugitzen baitute bidaiari gehien. Gasteizen aldiriko trenen gunen bat sortzea eta Renferen, Feveren eta Euskotrenen lineak bilduko dituen Euskadiko eskualde-sarea ezartzea.



» **Garraio publikoaren eskaintza indartzea**, sarea benetako mugikortasun beharretara egokituz. Zerbitzua orekatzea eta bereziki zerbitzu gutxi dituzten eremuei arreta jartzea. Garraio publikoaren multimodalitatea ziurtatzea, eta, adibidez, tren eta autobusetan mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak, hala nola bizikletak eta patineteak, garraiatzeko aukera ematea.

9. [Movilidad | Greenpeace España](#)

10. [Eustateko datuak bukaerako energia kontsumoaren inguruan](#)

11. [NEG inguruko Eusko Jaurlaritzaren datuak](#)

PETICIÓN

» **Azpiegitura berriek lurraldean duten eragina eta sortzen duten zatiketa minimizatzea, bereziki azpiegitura hauek garraio pribatuarentzat badira.** Egungo sarearen kontserbazioari lehentasuna ematea, autobide berriak, abiadura handiko linea berriak eta portu edo aireportu berriak eraiki edo handitu beharrean. Inbertsioak lehendik dagoena mantendu eta hobetzeko erabiliko dira, inbertsio puntualak, "kirurgikoak", eginez, akatsak dituzten puntuak zuzentzeko. Zehazkiago:

- » Bilboko hegoaldeko saihesbidea (Supersur) handitzeko obrak geldiaraztea.
- » Abiadura handiko trenaren proiektu berriak baztertzea, trenbide-konexioa duten zatietatik igarotzen badira. Bestek beste Euskadi-Nafarroa lotura berria ez egitea, eragin ekonomiko eta ingurumeneko handia baitu.
- » Bilboko aireportua handitzeko planak geldiaraztea.
- » Ibaizabal ibaiaren azpiko tunelaren proiektua geldiaraztea.

PETICIÓN

» **Mugikortasunaren Euskal Legean jasotako garraio txartel bakarraren sistema ezartzea, garraio publikoaren erabilera sustatzeko eta emisioak murrizteko.** Txartel horrek garraio bide guztiak erabiltzeko aukera eman behar du (autobusa, metroa, tranbia, bizikleta elektrikoak, etab.).

PETICIÓN

» **Bizikleta sare bat garatzea** udalekin lankidetzan, ondoko udalerrietan eta udalerrien artean segurtasunez ibiltzeko aukera bermatuz, sare seguru eta konektatu baten bidez, eta gaur egun dauden arrakalak ezabatuz.

PETICIÓN

» **Garraio eskaintza landa eremuko biztanleriaren beharretara egokitzea,** berriazko mugikortasun irtenbideekin; adibidez, eskariaren arabera garraio zerbitzuak, mugikortasun partekatua edo autobusen ibilbide dinamikoak bultzatzea.

PETICIÓN

» **Garraio publikoaren elektrifikazioan eta mota guztietako ibilgailu elektrikoetarako kargatze-puntuak eskuragarritasunean aurrera egitea,** bereziki hiriarteko ibilbideetan eta biztanleria dentsitate txikiak garraio publikoaren kudeaketa zailtzen duen lekuetan.

PETICIÓN

» **Garraio publikoaren eta bestelako modu garbi eta osasungarrien bidez, lanpostuetara iristeko pizgarriak ezartzea, eta konziliazio eta zainketen aldeko neurriak hartzea.** Laneko Garraio Planak sustatzea, mugikortasun sortzaile handientzat nahitaezkoak eginik (enpresen egoitzak, ekitaldiak, etab.). Hirien eta ingurumenaren arteko bateragarritasuna, osasungarritasuna eta bateragarritasuna hobetzea, telelaneko hitzarmenen bidez, pertsonak denbora gehiago izan dezaten bizitza pertsonala, familiakoa eta zaintza lanak bateratzeko.



URA, ONDASUN URRIA ETA PERTSONA GUZTIEN ESKUBIDEA¹²

Ura da gure ondasunik preziatuena eta arrisku larrienean dagoena. Gero eta ur gutxiago dugu eskura, eta klima aldaketak estres hidrikoa areagotzen du. Irtenbideak ez dira urtegiak, ura alde batetik bertzera mugitzea, ontzietan garraiatzea edota koste handia eta eraginkortasun gutxi duten gezatzeko makina gehiago egite. Irtenbide faltsu guzti hauek mugarik gabeko eskuragarritasunaren ilusio arduragabeari eusten diote arazoa areagotuz. Akuiferoen ustiapenaren eta kutsaduraren aurrean permisibitate konplizearekin jarraitzea ere onartezina da, ez eta jadanik urriak diren emari ekologikoak murriztea eta gure ibaiak bizirik gabeko hodi bihurtzea ere. Konponbide faltsuen aurrean, premiazkoa da Euskadik ura kudeatu eta erabiltzeko kultura berri bat sustatzea; zarrastalkeriaren, kutsaduraren eta mega-azpiegituren aldeko apustua bertan behera uztea, eta iruzurrarekin amaitzea. Konponbide gisa, kalitatezko ura eta ingurumen orekatua izateko eskubidea onartu behar da, arlo horretako jarduerak gidatuko dituen elementu nagusi gisa. Gainera, benetako plangintza eta kudeaketa sustatu behar dira, klima aldaketara egokitzea, eraginkortasuna, erabileren berrorka eta berrerabilera erdiesteko. Alde horretatik, funtsezkoa da uraren kontsumo aseezina gutxitzea, batez ere industriaren, turismoaren, nekazaritzaren eta abeltzaintza industrial eta intentsiboaren aldetik; era berean, ezinbestekoa da deskontaminatzea eta poluitutako ur masak leheneratzea.

Hauek dira legegintzaldi berrirako proposamen batzuk:



➤ **Hirigintzari lotutako garapen berrietan ura aurrezteko neurri aktiboak sartzea**, hala nola etxeetarako ur grisak berreskuratzea, ureztatzeko eta kale-baldeaketetarako euri-ura berreskuratzea. Halaber, lorategiak ura aurrezteko irizpideekin diseinatzea eta zola drainatzaileen instalazioa orokortzea, ura biltegiara eraman ahal izateko eta lur azpira infiltrazioa erraztuz, akuiferoak betetzeko.



➤ **Abeltzaintza industrialeko proiektu berriak zein martxan dauden horiek handitzea debekatzea**. Euskal Autonomia Erkidegoko azienda intentsiboa% 50 murriztea 2030erako¹³.



➤ **Abeltzaintza industrialean ongari sintetikoaren erabilerarengatik, zein sortutako gorozkiak eta mindak eragiten duten uraren kutsadura murriztea**. Horretarako, eta lehen urrats gisa, funtsezkoa da nitratoak jasan ditzaketen eremu berriak deklaratzeko, 47/2022 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

12. [Agua | Greenpeace España](#)

13. [Macrogranjas - ES | Greenpeace España](#)



➤ **Ustiapen iraunkorrak, dibertsifikatuak eta ur-kontsumo txikikoak sustatzea**, klima aldaketaren ondorioen ondorioz eskura dauden emarietara egokituak, eta ugaritzen ari den **ureztatutako nekazaritza industrial eta intentsiboa birmoldatzea**.



➤ **Kontsumorako baliabide hidrikoen kudeaketa publiko eraginkorra sustatzea** eta tarifen progresibotasun handiagoa bultzatzea. Ura arazteko, berreskuratzeko eta erabiltzeko sistema kudeatuetan teknologia eraginkorrenak sartzea.



➤ **Ibaiak, ibaiertzeko basoak eta ibar-buruak babesten eta lehengoratzten laguntzea**. Akuiferoak kargatzeko gaitasuna hobetzeko proiektuak garatzea, “ura landatzea” kontzeptupean.



➤ **Lur azpiko urak berreskuratzeko eta babesteko neurriak ezartzea**, bai Araban, nitratoen eraginpeko eremuei lotuta, bai Gernikan, industria-jarduerak akuiferoa kutsatuta baitu.



➤ **Ezestea Guggenheim Museoak Urdaibain duen egoitza berriaren proiektua**; izan ere, dagoeneko poluituta dagoen Gernikako akuiferoaren gaineko presioa handitu dezake, eta ur-eskaera handitu, erakar dezakeen turista kopuruagatik, dagoeneko urteko garai batzuetan hornidura-arazoak dituen eremu batean.



GURE NATUR ONDAREA MEHATXURIK GABE

Gure ondare naturalak gure gizarteen bizitzari eusten dio eta gure kulturaren eta ekonomiaren oinarria da. Alde horretatik, Urdaibaiko biosferaren erreserba gune esperimental gisa sortu zen, naturaren babes eta giza jarduera konbinatzeko, garapen ekonomiko eta giza jarduerak naturaren kontserbazioarekin bateragarriak ziren ikusteko. Gaur egun, nazioarteko babes figura ugari dituen eremua da: Oka ibaiaren estuarioa Hezeguneei buruzko Ramsar Nazioarteko Hitzarmenaren parte da; Mundaka-Gernikako itsasadarra Nazioarteko Intereseko Hezegunetzat jotzen da, eta Murueta Natura 2000 Sarearen parte da. Hala ere, inguru horretan hainbat presio daude, balio natural horiek arriskuan jartzen dituztenak, hala nola lurzoru eta akuifero kutsatuak, eukaliptoeko monolaborantzetan oinarritutako baso politika edo Guggenheim museo berri baterako proiektua.

Ez dago aurrera egin dezakeen herri, hiri edo jarduerarik bere kostaldea suntsitzen bada, bere basoek su hartzen badute edo lurzoru higaduratik eta desertifikaziotik babesten ez bada. Bizia ez da posible euririk egiten ez badu, ibaiak eta akuiferoak kutsatu eta gainustiatzen badira, edo itsasoa toxikoz eta plastikoz betetzen badugu eta bertan bizi diren espezieak suntsitzen baditugu.

Ondare ekologiko handia du Euskadik. Orain daukagun eta hurrengo belaunaldiei uzten ahal diegun ondare preziatuena da. Hala ere, ondare hau arriskuan jartzen duten planetaren etorkizunerako erronka handiak bizi ditugu, bereziki klima aldaketa gure ateari deika ari dela. Horregatik, funtsezkoa da gure kapital naturalak epe laburreko interes ekonomikoen gainetik duen balio estrategikoa onartzea. Gure geografia hirigintzaki lotutako espekulazioko orbainez beteta dago, gutxi erabiltzen diren aireportuez, makrogranjez, hezegune kolapsatuez eta gainerako azpiegiturez. Hauek interes publikoaren eta etorkizuneko belaunaldien aldeko politika egiteko modu berri baten premia erakusten dute.

Horregatik, Euskadik hau egiteko aukera du:



➤ **Kostaldearen babes bermatzea, kostaldeen legea errespetatuz eta urbanizazio, zerbitzu edo industria proiektu berrien eraginak ekiditea, bai eta talka konponezinak dituztenak debekatzea ere.** Zehazki, Petronorrek Muskizen duen koke instalazioa eraitsi behar da, itsasertzeko legez kanpoko eraikuntzak desegiteko eta inguru lehengoratzeko epaitegien epaiak errespetatuz, eta Urdaibaiko Biosferaren Erreserban aurreikusia dagoen Guggenheim museo berrirako proiektua alde batera uztea ezinbertzekoa da eragin ditzakeen kalteengatik.



➤ Aldaketa klimatikoak dakartzan mehatxuen aurrean (beroboladak, suteak, lehorteak, uholdeak, itsas mailaren igoera, etab.) **klima aldaketako agertokietara egokitzeko plan bat prestatu eta ezartzea**, arlo erabakigarrietan erresilientzia areagotzeko estrategiak izanen dituenak eta eta aurrekontu egokia izanen duena.



➤ **Ekosistemen eta espezieen babesa eta berreskuratzea handitzea, 2030erako babestutako azaleraren %30eko mugara iritsi arte**, beharrezko antolamendu eta kudeaketa tresnak gauzatzuz¹⁴. Plangintza horrek kontuan hartu beharko ditu lurraldearen erabileren funtzioaniztasuna eta bere ekosistema zerbitzuak zaindu beharra. Era berean, kontuan hartu behar da klima aldaketaren egoeretara eta horri lotutako arriskueta egokitu beharra dagoela, eta erabakiak hartzeko tokian tokiko komunitateak kontuan hartu behar direla.



➤ **Egokitzapenezko baso kudeaketa eta beste jarduera batzuetara integratutako basogintza bultzatzea, klima aldaketaren agertokiaren aurrean erresilienteagoak izanen diren paisaiak osatuz**. Bereziki, baso sute handiak hedatzeko arriskua murriztu behar da, eta pinu eta eukalipto landaketek hartzen duten azalera nabarmen murrizteari ekin, Bizkaian ezarritako luzamendua euskal lurralde osora zabalduz eta eraginkor bihurtuz. Baso azaleraren %45 publikoa denez, eta %25,8k bakarrik dituen antolamendu planak, funtsezkoa da Basoak Antolatzeko Planen idazketari eta aurrekontu esleipenari lehentasuna ematea.



➤ **Urte osoan zehar suteen prebentzio eta itzaltze politika bat ezartzea**, klima aldaketa kontuan hartuko duena, eta erretako guneak berreskuratzeko planak bultzatzea. Mendiei buruzko legea bete behar da, baso sutea izateko arrisku handia duten eremuetako prebentzio edo defentsa planei dagokienez. Gaur egun oraindik ez dago Arrisku Handiko Zonen definiziorik, prebentziorako ezinbestekoak badira ere. Izan ere, Baso Suteengatiko Larrialdietarako Foru edo Udal Jarduketa Planetan definituko omen dira, baina Foru Plan bakarra dago jendaurrean, eta ez du halako erreferentziarik egiten. Arrisku handiko eremu horietan eta hiri eta baso interfazeko eremuetan, lehentasuna eman behar zaio paisaiaren zatiketari, erregaiaren jarraikortasuna saihesteko. Eta, gainera, herritarrak prebentzian eta autobabesean trebatzeko sentsibilizazio eta hezkuntza kanpainak abiaraztea.



➤ **Basoak kudeatzeko baliabideetarako aurrekontu partidak lehenestea**, erregai kopurua jaisteko (jarraikortasuna eta hedapena), intentsitate handiko suteen aurrean paisai erresilienteak sortzeko.



➤ **Lehengoratzeko ekologikoa, korridore ekologikoak eta baso helduen babesa sustatzea**. Administrazio eskudunen arteko koordinazioa, sektore arteko parte-hartzea eta gardentasuna sustatuz.



➤ **Polinizatzaileen eginkizuna indartzea**, 2030erako plagizida sintetikoen erabilera %50 murriztuta, egungo biodibertsitate galera leheneratzeko. Glifosatoa hiriko lorezaintzan eta kontserbazioan erabiltzeko debekua eta trantsizio plan bat aurkeztea, nekazaritzan erabat kentzeko.

14. Planes de Ordenación de los Recursos Naturales (PORN), los Planes Rectores de Uso y Gestión (PRUG)



HERRI BIZIAK ETA ONGIZATEAREN SUSTATZAILEAK¹⁵

Ezin gara krisi klimatikoaren eta biodibertsitate galeraren aurka borrokatu landa ingurune bizi eta jasangarririk gabe. Landa eremua indartu behar dugu erresilientziarako eta egokitzapenerako elementu estrategiko gisa. Ezinbestekoa da habitat bizien eta anitzen aldeko apustua egitea, mosaikoko paisaiak erabiliz, non giza jarduerak eta ekosistemak elkarri lotuta dauden. Gure landa ingurunean eskubide eta praktika jasangarriak bermatu behar ditugu, horiekin bakarrik egin baitezakegu aurre klima krisiaren ondorioei. Landa eremuetan azpiegiturarik, zerbitzu publikorik eta lan aukerarik ez izatea oztopoa da lurrian lan egiten duten pertsonentzat, eta erronka demografikoari erantzun egokia ematea eragozten du, bereziki gazteen artean.

Euskadiren ekintzak baldintza hauek bete beharko ditu:



- **Elikadura burujabetza, nekazaritza-aniztasuna eta nekazaritza ekologikoa sustatzea**, klima aldaketari eta energia-trantsizioari buruzko euskal legearen helburuak handituz 2030erako erabilitako nekazaritza azaleraren % 30era eta 2050erako % 100era iritseko¹⁶.



- **Hurbileko kate ekologikoa laguntzen eta sustatzen jarraitzea**, nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoari eta arrantza jasangarriari laguntzeko eta banaketarako zentro logistikoak sortuz eta hobetuz. Auzoko merkatu agroekologikoak eta merkatu ibiltarien (ez sedentarioak) sarea zabaltzea. Natura babestearekin eta hurbileko produktuak banatzeko sareekin lotutako produktuak baloratzea eta hauek bereizteko moduak sustatzea.



- **“Planetaren osasun-dieta”¹⁷** eta landare jatorriko produktuen, produktu ekologikoen, denboraldiko produktuen eta lokalen kontsumoa sustatzea, eta hauei lehentasuna ematea ikastetxeetako jantokietan, ospitaleetan, adinekoen egoitzetan eta abarretan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera (9/2017).



- **Elikagai ekologikoen, lokalen eta sasoiko elikagaien oinarritzko saski soziala sortzea** eta familia ahulei (gizarteratzeko gutxieneko errenta dutenei) banatzea.

15. [Salvar el planeta desde la España vaciada](#)

16. [Agricultura y ganadería | Greenpeace España](#)

17. [¿Tu alimentación es sostenible? | Greenpeace España](#)



➤ **Artisau arrantza jasangarria defendatzea**, arrantza baliabideen eta itsas ekosistemen kudeaketa hobetuta¹⁸. Artisau arrantzatik datozen produktuak sustatu behar bezala identifikatuz eta behar duten balioa emanez eta itsas azalera babestua handitzea. Arrantza tokien gehiegizko ustiapenaren, legez kanpoko arrantzaren eta artisau flotari kalteak eragiten dizkioten arrantzaontzi industrialekiko lehiaren aurka borrokatzea.



➤ **Akuikulturako establezimendu berriak eragozte**a, hala nola, Getariako hegalaburraren proiektua. Sektorearen belaunaldi-errelebuaren problematikari erantzuna ematea.



➤ **Lurraldearen balio naturala, kulturala eta ondare balioa aitortzen duen turismoa sustatzea**, inguruko karga ahalmena kontuan hartzen duen eta oreka soziala eta ekologikoa bilatzen duen plangintza egokiarekin. Turismo masiboko eremuetan tasa turistikoak sartzea, eta proiektu berriak bertan behera uztea, hala nola Urdaibaiko Erreserban aurreikusten den Guggenheim museo berria. Bertze ingurumen kalteez gain, dagoeneko ur horniketarako arazo handiak dituzte zonaldean, ur erreserbekiko presioa are larriagoa izango litzateke proiektu honek aurreikusita daukan pertsona kopurua erakartzean.



➤ **Osasun, hezkuntza eta zainketa arloko oinarrizko zerbitzu publikoak bermatzea**, baita ere kooperatiba eta enpresa txiki eta ertainei emandako laguntzak mantentzea biztalneriaren galera ekiditeko. Tokiko produkzio txikia enpresa handien aurrean positiboki diskriminatuko duen araudia ziurtatzea.



➤ **Landa inguruneari buruzko sentsibilizazio eta kontzientziario kanpainak sustatzea**, modu honetan, landa eremuaren errealitatea kontuan har dadin erabakiak hartzekotan, eremu hauentzat bereziki egindako eta hirietan fokatu gabeko soluzioak eskainiz, eta, hala, hiri eta landa eremuaren arteko arrakala gutxituz.

18. [Pesca sostenible | Greenpeace España](#)



GUTXIAGO KONTSUMITU, GEHIAGO ZAINDU ETA HOBETO BIZI¹⁹

Gure bizimoduak 2,5 planetaren baliabideak kontsumitzea eskatzen du. Gure kontsumitzeko moduan kultura aldaketa behar dugu, soiltasunaren, partekatzearen eta konpontzearen, bigarren eskuko produktuak erabiltzearen eta hondakinak murriztearen alde, gure hiriak eta herriak bizitzeko leku osasungarriagoak, ongizate handiagokoak eta aztarna ekologiko txikiagokoak bihurtzeko. Posiblea da pertsonen oinarriko beharrak kalitatez bermatzea; aurrezpen materiala eta energetikoa eta ekonomia zirkularra sustatzea; hiperkontsumismoa, xahuketa, erabili eta botatzeko kultura eta zaharkitzapen bizkorra zigortzea, eta planetaren kontura egindako nabarmenkeriak gainditzea eta desberdintasunak murriztea.

Horretarako, politika autonomikoek aukera hauek dituzte:

- PETICIÓN** ➤ **Erosketa publiko ekologikoa eta jasangarria bermatzea, kontsumo-ondasunen konpongarritasuna eta berrerabilpena sustatuko duten politikak ezartzea eta gai horietan enplegua sustatzea.**
- PETICIÓN** ➤ **Kontsumo kontzientea eta arduratsua sustatzea.** Produktuen iraunkortasuna eta konpongarritasuna eskatzea eta programatutako zaharkitzea debekatzea. Hezkuntza formalean iraunkortasunerako eta kontsumo arduratsurako beharrezkoak diren gaitasun eta trebetasunak ezartzea, irakasleentzako nahitaezko prestakuntzarekin.
- PETICIÓN** ➤ **Inportatutako deforestazioari buruzko erregelamendua garatzeko agintari eskudunak eratzea,** eta, horren bidez, inportatutako produktuek, baita erosketa publikokoek ere, hirugarren herrialdeetako baso-ekosistemetan duten eragina kontrolatzea eta murriztea.
- PETICIÓN** ➤ **Ondo bizi ahal izateko aisia sustatzea,** kanpoan eta naturan, eta kirol, kultura eta gizarte eta nazioarteko boluntarioritza jarduerak egitea. Publizitaterik gabeko eremuak ezartzea. Osasunerako kaltegarria den publizitatea debekatzea.
- PETICIÓN** ➤ **Hondakinei buruzko lege bat egitea,** Euskadik zabortejiaren eta errausketaren eredia behin betiko alboratu dezan, hauen kudeaketa eskasak sortutako arazo guztiak gainditzeko. Hurbileko eredu deszentralizatua ezartzea, jatorrian bereizitako materia organikoa murrizteari, berrerabiltzeari, birziklatzeari eta aprobetxatzeari lehentasuna emango diona, konpostajea ezartzea, gordailatzeko eta itzultzeko sistemak

19. [Consumo responsable | Greenpeace España](#)


(SDDR) eta abar ezarriz. Horretarako, Zabalgarbi eta Zubietako erraustegia itxi behar dira. Gainera, hondakinen sorrera-tasa ezartzea.



➤ Elikagai kateko maila guztietan, baina bereziki produkzioan, **elikagai hondarrak gutxienez %50 murriztuko direla bermatzea 2024rako.**



➤ **Hondakin organikoen birziklapena eta behin bakarrik erabiltzeko ontzien murrizketa sustatzea.**



EKONOMIA DEMOKRATIKOAGOA, PERTSONEN ETA PLANETAREN ZERBITZURA

Gaur egungo eredu sozioekonomikoak ezaugarri hauek ditu: mugarik gabeko hazkundera, erauzketa lineala eta kapital naturalaren epe laburreko banaketa, eta botere eta aberastasun gehiegi metatzea %1 aberatsenen artean. Aldiz, ekonomia demokratizatuago bat, integratzailea, kooperatiboa, aukera berdintasuna bermatzen duena eta bere kapital naturala babesten duena da pertsonen eta etorkizuneko belaunaldien ongizate handiagoa sustatuko duen eredu arduratsuaren oinarria. Beharrezkoa da oligopolioek menperatutako ekonomia eredutik aldentzea, hauek merkatuak desitxuratzen baitituzte, aparteko mozkinak lortuz eta tokiko eragile ekonomikoak eta kontsumitzaileak kaltetuz. Funtsezkoa da aukera berdintasunaren, lana eta zaintza uztartzearen, zerbitzu publikoen eta ondasun komunen aldeko gastu publikoaren koherentzia eta eraginkortasuna bermatzea. Era berean enpresa antolaketarako eta berrikuntzarako eredu kooperatibagoak, oparotasun partekatukoak, tokian tokikoak, erantzukizun fiskala onartuko dutena eta ingurumenarekin konprometituak egonen direnak sustatzea.

Euskaditik hau egin daiteke:



➤ **Oinarrizko ur, berokuntza eta elektrizitate hornidurak eta etxebizitza eskuratzeko eskubidea bermatzea** egoera ahulean eta energia pobrezian dauden pertsonen. Privatizazio prozesuak lehengoratu eta kudeaketa publiko komunitarioa sustatzea.









➤ **Kontratazio publiko ekologikoa eta iraunkorra ezartzea** kontsumo ereduen ardatz nagusi gisa eta administrazio publikoen lizitazioetarako.



➤ **Zerga sistema berde eta bidezkoan aurrera egitea²⁰ erkidego mailan**, progresibotasun printzipioen arabera portaera aldaketak bultzatzen dituen eta “kutsatzen duenak ordaindu egiten du” printzipioan oinarritua. Trantsizio ekologiko justuan eta etorkizuneko ikuspegiarekin aurrekontu berdea indartzea. Zerga sistema berriak pizgarri argiak ezarri behar ditu garraio garbia erabiltzeko, energia eta ura aurrezteko, energia berriztagarriak ekoizteko eta kontsumitzeko, emisiorik gabeko ibilgailuak erosteko eta erabiltzeko. Era berean zerga progresiboak ezarri errekontu motordun ibilgailu pribatuaren gainean, hondakinen isurketa eta erreketaren gainean, lur erabileren aldaketei, ongarri sintetikoak, gehiegizko kontsumoari etab.







20. [Propuestas de fiscalidad ambiental](#)

-  ▶ **Trantsizio ekologikoan parte hartu nahi duten pertsona eta negozioentzako neurri fiskalak eta laguntzarako neurriak abian jartzea:** autokontsumoa, birgaitze energetikoa, eraikuntza jasangarria, mugikortasun jasangarria, eskaria kudeatzeko eta gehitzeko sistemak bai garraiokoak bai energia elektrikokoak, elikadura ekologikoa, tokikoa eta sasoikoa, etab.
-  ▶ **Tokiko, partaidetzako eta ingurumeneko ekonomia sustatzeko tresnak garatzea,** hala nola aurrekontu parte-hartzaileak, erosketak publiko arduratsua, energia berriztagarrietako energia-kooperatibak sustatzea edo tokiko edo eskualdeko txanpon birtualak garatzea.
-  ▶ **Ekonomia sozialaren, berdearen eta zainketen sare ekonomikoa indartzea,** neurri hauekin: espazio fisikoaren eskaintza, hurbileko eta zirkuitu laburreko merkataritzarako pizgarriak, enpresa eta teknologia aholkularitzako zerbitzuak, finantza bitartekotza, pizgarri fiskalak, enplegua sustatzea oso prekarizatuta dauden sektoreetan (zainketak, hondakinen kudeaketa...), lizentzia libreen sustapena, unibertsitatearekin lankidetzak eta ikerketak hitzarmenak.
-  ▶ **Unibertsitateari ingurumen iraunkortasuneko eta berrikuntzako arloetan laguntzea,** trantsizio ekologikorako zientzialari eta liderren belaunaldi berria prestatzeko.
-  ▶ **Guztion onerako izan den ekonomia baten oinarriak ezartzea.** Ekonomiak gizarte osasuntsu, zuzen eta kohesionatu baten oinarrian baino ezin du aurrera egin. Horregatik, ezinbestekoa da ongizaterako lehentasunezko arloak indartzea: gazteen enplegu politikak, diru-sarrerak bermatzeko oinarritzko errentak, gizarte zerbitzu eta politikak, etxebizitza, hezkuntza, osasuna, ikerketa eta berrikuntza, etab.
-  ▶ **Aurrekontu berdeak eta ongizate kolektiboa neurtzeko “BPGaz haratago” neurriak abiaraztea.**



DEMOKRAZIA SUSTATZEN DUTEN ERAKUNDEAK

Administrazio autonomikoek pertsonen eguneroko bizitzari eragiten dioten gaiak kudeatzen dituzte, eta, horregatik, eremu pribilegiatua dira herritarrek erakundeekiko lotura handiagoa izan dezaten. Horrek politika publikoen eraginkortasuna handituko luke. Herritarren parte-hartzeak legitimatu egiten ditu hortik sortzen diren erabakiak, sistema demokratikoa bera indartuz. Herritartasun aktiboa eta kritikoa sustatzea polarizazioaren aurkako antidotoa da, eta herritarrek politikarekiko duten desafekzioa, gure gizarteetan gaur egun dagoen degradazio demokratikoaren sintometako bi. Horretarako, ezinbestekoa da, halaber, administrazio autonomikoek gardentasunaren eta gobernu onaren bide eredugarrian aurrera egitea, kontuak emanez, informazioa eskuratuz eta ustelkeriatik babesteko mekanismo egokiak bermatuz. Horretarako, Euskadik hau egin behar du:

-  **Autonomia erkidegoen eskumenekin zerikusia duten gaitan herritarren parte-hartzea sustatzea.** Herritarrei gai garrantzitsuei buruzko erabakietan parte hartzeko bide emango dieten mekanismo eraginkorrak abian jartzea, hala nola, osasun, hezkuntza edo ingurumena babesteko zerbitzuak, azpiegitura proiektuak eta garraio programak. Autonomia erkidegoko lege ekimenen kasuan, kontsulta publikoko prozesuen kalitatea eta inklusioa hobetzea, sartzeko baldintzak malgutzea eta emaitzen lotura bermatzea.
-  **Emakumeen eta gazteen eta talde ahulen (gutxiengo etnikoak, pertsona migratzaileak eta ezgaitasunak dituzten pertsonak) bizitza publiko instituzionalean erabateko parte-hartzea mugatu dezaketen oztupoak ezabatzea.**
-  **Gobernu irekian aurrera egitea,** kargu publikoek botere taldeekin dituzten harremanak gardenagoak izan daitezen berriazko erregulazioaren bidez, eta interes taldeak erregistratzea bezalako neurriak har daitezen kargu publiko batekin bildu aurretik.
-  **Kontuen eta kontratu publikoen gardentasun handiagoa ezartzea,** informazioaren kalitatea eta sarbidea hobetuz.
-  **Munduko beste leku batzuetan lurraldea, ingurumena edo giza eskubideak defendatzeko lanean jazartzen eta jazartzen diren pertsonen elkartasuna eta laguntza emateko ekimenak ezartzea.**
-  **Sistema demokratizatzea, interes-taldeen jardueretan gardentasun- eta integritate-lege bat sustatuz,** ate birakariei aurre egin eta lobby izenekoak arautzeko.